

Durangoko Emakume eta Gizonen Arteko Berdintasun Plana

Durangarra zaren heinean, Durangoko Emakume eta Gizonen Arteko II. Berdintasun Plana sortzeko bidearen berri eman nahi dizugu, horrela, orain arte egin den lanaren eta hemendik aurrerako jakitun egon zaitezten.

2008an hasi ginen lanean, 2009tik 2011ra begirako plana egiten, eta 2012.urtean plan horren ebaluazioa egin genuen.

Ebaluazioa positiboa izan zen. Izan ere, Durangon, Berdintasun Saila, elkarte feministak, eta berdintasun planaz gain, berdintasun arloan eragin handia izan duten ekintzak egin dira, eta ez bakarrik herriko emakumeentzat, herritar guztientzat baizik.

Horren adibidea Andragunea da, 2009an inauguratutako emakumeen etxea da. Emakumeen elkargune eta jabeakuntzarako formazio gunea da, eta eskola horrek erreferente izatea lortu du Euskadin, eta baita Espainian ere. Horrez gain, udalean berdintasun teknikariaren figura egonkortu dugu, herriko berdintasun neurrietan aurrerapausoak emateko.

Momentu honetan, Durangoko Udalak orain arte burututako ekintzak ebaluatuko ditu eta emakume eta gizonen arteko bigarren berdintasun plana sortzeari ekingo dio, 2012an egindako ebaluazioan ikasitakoak aintzat hartuta.

Lan hori garatzeko Emakunderen eta EDE genero aholkularitzako federazioaren laguntza izango dugu.

Gaur egun, prozesuaren fase honetan gaude:

Ebaluazio eta diagnostiko aldia, Durangoko Udaleko berdintasunaren egoerari buruzko argazki bat eduki ahal izateko.

Helburu nagusia Durangoko Udalaren berdintasun politikei buruzko informazio kuantitatibo eta kualitatiboa lortzea da. Gainera, udal mailan eta gizarteko arlo guztietan emakumeek eta gizonek dituzten lan-baldintzak eta postuak aztertuko dira, horrela, azterketa horren bidez, errealitateari egokitutako berdintasun politikak planifikatzeko behar diren erabakiak hartu ahalko ditugu.

Planaren helburu espezifikoak 5 izango dira:.

1. Identifikatzea udal politiketan genero ikuspegia txertatzeko lanketa zein **oinarrizko esparruetan** egin behar den.
2. Udal arloko sail eta zerbitzuen diseinu eta garapenean genero ikuspegiak zelako integrazioa eta iragazkortasuna duen antzematea.
3. Udaleko emakume eta gizonen lan baldintzak eta postuak ezagutzea.
4. Emakumeen eskaera sozialak zeintzuk diren eta egoera soziala zelan ikusten duten ezagutzea.
5. Egoera soziala ezagutzea, udal jardueren maila guztietan emakumeek eta gizonek dituzten baldintza eta postu sozialen azterketatik abiatuta.

Azterketa fase horren ostean helburu operatiboak / esperotako emaitzak izango ditugu:

1. Udalak berdintasun politikei dagokienez dituen indargune eta ahuleziak ezagutzea, horrela, jardueren diseinu errealista bat egiteko, Eusko Jaurlaritzaren VI. Berdintasun Planaren eta Berdintasunaren Euskal Legearen markoan.
2. Emakume eta gizonen baldintza eta postu sozialak ezagutzea, Durangoko gizartean, udal arloan eta berdintasun arloko esku-hartze esparruetan.

Durangoko berdintasun egoeraren diagnostikoa egiteko, bi arlotan egingo da lan:

1. Udaleko pertsonal teknikoarekin eta politikoarekin.
2. Administrazioetik kanpo, herritarrekin. Horretarako bide hauek jorratuko dira:
 - a. Berdintasuna lantzeko lan-talde bat osatuko da udaleko eta elkarteetako ordezkariekin.
 - b. **Emakume durangar guztiei “World Cafe” baten parte hartzeko deia egiten diegu, ekainaren 21ean, 19:00etatik 21:00etara, Lariz Torren.** Ekimenaren helburua genero arloko beharrian praktikokoak eta interes estrategikoak detektatzea izango da.
 - c. **Herritar guztiei “Open Spice” ekimenean parte hartzeko deia egiten diegu, Andra Mariko elizpean, ekainaren 25ean, 12:00etatik 14:00etara.** Ekimenaren helburua genero arloko beharrian praktikokoak eta interes estrategikoak detektatzea izango da.
 - d. Horrez gain, berdintasunaren inguruko ekarpen eta iradokizunak ohiko bideetatik ere egin daitezke, HAZen, udaleko webgunearen bidez edo berdintasuna@durango-udala.net helbidera idatzita.

Agur bero bat,

PILAR RIOS

ALKATEORDE ETA BERDINTASUN SAILEKO PRESIDENTEA